

Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2012ko abenduaren 20ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean, 18:30etik 21:00etara



Gaia: Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen bilketa-sistema aztertzea eta proposatzea.

1. Akta honek...

Hondakinen gainean Legazpiko Agenda 21eko Foroan, gaur egun duen tailerlean, jasotako ideia nagusiak bildu nahi ditu.

Bilera informatiboa da gaurkoa eta, beraz, dokumentu honetan jasotako datuak Iñaki Erauskin Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak bere aurkezpenean eskainitako datuak dira. Eta **aktan ez ditugu jaso** –leku faltarengatik eta zehaztasunez eta ñabardura guztiekin jasotzea zaila delako– bertaratu diren pertsonen aurkezpenean zehar egin dituzten galderak eta esku hartzeak.

Has gaitezen!

2. Gaurko tailerraren helburua

Gogora ekarriz, testuinguruan kokatuko dugu bilera:

- Joan den 2012ko otsailaren 23ko Foroaren tailerlean, Iñaki Erauskin teknikariak Legazpiko zaborren errealitatearen datu nagusiak azaldu zizkigun; hau da, "gaur egun nola gauden" erakutsi zigun.
- Hilabete beranduago, martxoaren 22ko bileran, Foroak gai honetan zein eginkizun duen eztabaidatu zuen, gobernu taldeak atez ateko sistemaren aldeko jarrera hartu eta gero. Eta, zehatz-mehatz, Sasieta mankomunitateak kontratatutako azterketaren gaineko informazioa jasotzea eskatu zuen.

- Beraz, gaurko **tailer informatiboa**, joan den martxoan Legazpiko Agenda 21eko Foroarekin hartutako konpromisoari erantzun nahi dio.
- Gaurko tailerraren helburu nagusia hau da: Mankomunitateak eskatuta, Spora enpresak egin duen "**Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen bilteta-sistema aztertzea eta proposatzea**" izeneko azterketaren ideia eta ondorio nagusiak azaltzea.
- Eta bigarren helburua, azterketaren informazioa jasotzean bertaratutakoen artean sor daitezkeen **zalantzak argitzea** da.

3. Bertaratu direnak

Udaletxeko batzar aretoaren gehieneko jarleku kopuruak mugatu egin du tailerlean parte hartuko luketen pertsonen parte hartzea. Horrela, zehazki **55 pertsona bakarrik izan dira tailerlean parte hartu ahal izan dutenak**; eta 15-20 pertsona inguru, kanpoan geratu dira, sartu ezinik.

Parte hartzaileen kopurua mugatzearena udaletxearen sarreran ezarri den oharraren bidez jakinarazi da. Legazpiko Udalak segurtasun neurriak betetze aldera eta tailerraren martxa egokia bermatze aldera hartu du erabaki hori, bilerara jende asko etorriko zela aurreikusita.

Horregatik, **eskerrik asko** Forora hurbildu zareten **pertsona guztiei**. Eta batzar arotan sartu ezin izan duzuenoi –batik bat, gune honetan maiz parte hartzen duzuen pertsonen¹– **barkamena** eskatu nahi dizuegu.



¹ Jakinarazi behar dugu, bestalde, Legazpiko Udalak eta Sasieta mankomunitateak, urtarrilean zehar gai berari buruz **bilera informatibo gehiago** eskainiko dituztela Legazpiko gune desberdinetan.


Eskerrik asko!

Cristina Limia • Javier Urcelay • □Mikel Alberdi • □Jose Mari Azpeitia • □Rosa Agirre • □Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • □Fernando Samaniego • □M^a Cruz Lizarazu • □Sole Arostegi • □Antonio Andueza • □Ascensión Bilbao • □Blas Arranz • □M^a Joaquina Perez • □M^a Pilar Zabala • □Milagros Urteaga • □Nieves Aizpeolea • □Concepción Polite • □Conchita Zabaleta • □M^a Tere Ugarte • □M^a Carmen Eceolaza • □Felix Ocio • □M^a Jesus Auzmendi • □Oscar Valbuena (zinegotzia) • □Junkal Fernandez • □Angel Urrate • □Juan Carlos Agirre • □Roberto Alonso • □Jose Luis Herranz • □M^a Teresa Guridi • □M^a Carmen Landa • □Javier Arrieta • □Eugenio Gil (Korosti Zikloturistak) • □Feli Nuñez • □Ricardo Lizarralde • □Ramiro Gonzalez • □Salvador Diaz Martin • □Fructuoso Arribas • □Eloy Santiago • □Juan Cruz Diaz de Garayo • □Elene Hoyuelos • □M^a Jose Cantero • □Adelso Rodriguez • □M^a Carmen Iraeta • □M^a Angeles Zubia • □Asier Zaldua • □Koldobike Olabide • □Blas Cortazar • □Jose Angel Etxeberria • □Igor Urrate (zinegotzia) • □Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • □Enrique Enparantza (Sasieta mankomunitatea) • □Iñaki Erauskin (Sasieta mankomunitatea) • □Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • □Iciar eta Zorione (Prometea).

4. Foroari eskainitako informazioa

Zeintzuk izan dira Iñaki Erauskin teknikariak eskaini dizkigun **ideia eta ondorio nagusiak**?

Hasteko, 3 kontu:



ESTUDIO DE VIABILIDAD PARA LA MEJORA DE LA RECOGIDA SELECTIVA EN LA MANCOMUNIDAD DE SASIETA

ANÁLISIS Y PROPUESTA DE MODELO DE RECOGIDA DE RESIDUOS PARA EL MUNICIPIO DE LEGAZPI



- Azterketa hau aurreko legealdian eskatutakoa da: orduan, Sasieta mankomunitatean, hondakinak kudeatzeko eskualderako egokiena izan daitekeen sistemaren gaineko debatea sortu zen.
- Spora enpresa katalana izan da azterketa egin duena baina ez dago erabat bukatuta: horregatik, Legazpiko Udalaren osoko Bilkuran hasierako aurkezpena egin bada ere, behin betiko txostena urte bukaerarako prest egotea espero da.
- Gaia sakon aztertu nahi duenak eskura izango du azterketaren informazioa eta gaur Iñakik hemen erabili duen aurkezpena.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Segidan, **azterketaren** datu eta ondorio nagusiak laburbilduko ditugu. Horretarako, **4 atal** bereizi ditugu:

1. Azterketaren helburuak
2. Egungo egoeraren azterketaren emaitzak
3. Bilketa eszenatoki desberdinak alderatzea
4. Legazpirako proposatu den eredia

“Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen bilketa-sistema aztertzea eta proposatzea”

Datu eta ondorio nagusiak

1. Zeintzuk dira azterketaren helburuak? Hauek dira Mankomunitatearen helburuak:

- Hondakinak biltzeko eredu berria planteatzea:
 - Gaikako bilketaren emaitzak maximizatzea eta errefusa minimizatzea ahalbidetuko duena.
 - Eskualdeko udalerrietako errealitate desberdinetara (lurraldea, gizartea, ekonomia) egokituko dena, udalerrri bakoitzaren ezaugarrien arabera eredu desberdinak planteatzeko aukera egonik.
 - Ekonomikoki bideragarria izango dena eta inbertsio- eta ustiapen-kostuak minimizatzea ahalbidetuko duena.
- Fiskalizatzeko eredu berria planteatzea:
 - Udalerrrien eta mankomunitatearen arteko harreman fiskalak irizpide eta parametro objektiboei erantzun diezaiela.
 - Sortutako hondakin bakoitzerako (etxekoa, sortzaile bereziak eta etxe-hondakinen parekagarri diren enpresa, denda edo erakundeetako hondakinak - RICIA) sortzen denaren araberrako ordainketa sistema ezartzeko aukera baloratzea.
- Hondakinak biltzeko kontratu berria egitea eta diseinatzea erraztea. Gaur egun indarrean dagoen kontratua 2013ko irailean bukatuko da.
- Hondakinak biltzearekin eta kudeatzearekin zerikusia duten alderdi guztiak inplikatzeko, planteatuko den eredia arrakastatsua izatea bermatuko duen dokumentu praktiko, errealista eta adostua lortzeko.

“Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen bilketa-sistema aztertzea eta proposatzea”

Datu eta ondorio nagusiak

2. Egungo egoeraren azterketaren emaitzak:

- Gaur egun, Legazpin, sortutako hondakinen % 35 gutxi gorabehera biltzen da gaika. Beraz, % 65 zabortegian uzten da.



- Zabor-poltsaren ezaugarri orokorraren arabera, emaitza hori nabarmen hobe liteke; beste modu batera esanda, Legazpiko gaikako bilketa-portzentajea nabarmen izo daiteke.



“Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen biltzeta-sistema aztertzea eta proposatzea”

Datu eta ondorio nagusiak

3. Biltzeta eszenatoki desberdinak alderatzea:

- Ezarritako helburuak betetze aldera (1. puntua), hiru izan dira planteatu diren eszenatoki desberdinak alderaketa egiteko eta ondoko gaiei buruz ondorioak ateratzeko:

- Gaikako biltzetaren emaitzak
- Balantze ekonomikoa


- **1. ESZENATOKIA. Eszenatoki errealista, Legazpiko Udaleko gobernu taldeak adierazitako udal borondatek abiatuta:**
Komenigarriena, atez ateko biltzeta eta organikoaren alboko zamatzea + landa-eremuaren berregituratzea.
- **2. ESZENATOKIA. Mankomunitateko udalerrri guztietan atez ateko biltzeta-sistema.**
Hirigunean 4 frakzio atez ate biltzea + beira eta beste batzuk edukiontzietan + landa-eremuaren berregituratzea.
- **3. ESZENATOKIA. Mankomunitateko udalerrri guztietan 4 frakzio alboko zamatze-sistema duten edukiontziekin bildu.**
Alboko zamatze-sistemadun edukiontziekin bildu + organikoaren edukiontzia jarri + landa-eremuaren berregituratzea.

- Alderaketa horren arabera, gaikako biltzetaren emaitzak planteatu diren eszenatokietarako, hauek izango lirateke:

COMPARATIVA DE RESULTADOS DE RECOGIDA SELECTIVA



	SITUACIÓN ACTUAL		CARGA LATERAL		PUERTA A PUERTA	
	T	%	T	%	T	%
RESTO	2.541	69%	1.701	47%	810	27%
VIDRIO	273	7%	285	8%	300	10%
PAPEL CARTÓN	432	12%	463	13%	480	16%
ENVASES LIGEROS	133	4%	179	5%	297	10%
ORGANICA	0	0%	532	15%	771	25%
OTROS	289	8%	427	12%	392	13%
TOTAL	3.667	100%	3.586	100%	3.049	100%




“Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen biltzeta-sistema aztertzea eta proposatzea”

Datu eta ondorio nagusiak

3. Biltzeta eszenatoki desberdinak alderatzea:

- Balantze ekonomikoari dagokionez, 3 eszenatokientzako egindako estimazioak ondoko irudia ematen digu:

COMPARATIVA DE BALANCES ECONOMICOS						
ESCENARIOS	SERVICIO DE RECOGIDA	TRATAMIENTO	GASTOS ESTRUCTURALES	INGRESOS	APORTACIONES 2013	BALANCE
ESCENARIO REALISTA	669.000 €	175.000 €	72.000 €	213.000 €	439.000 €	-264.000 €
PUERTA A PUERTA INTEGRAL	622.000 €	175.000 €	72.000 €	213.000 €	439.000 €	-217.000 €
CARGA LATERAL INTEGRAL	456.000 €	300.000 €	72.000 €	128.000 €	439.000 €	-261.000 €

- 1) La **RECOGIDA** es un **47% más cara** en el escenario realista (PaP en Legazpi y otros municipios) que en el carga lateral integral.
- 2) El **TRATAMIENTO** es un **71% más barato** en el escenario realista (PaP en Legazpi y otros municipios) que en el carga lateral integral.
- 3) Los **INGRESOS** son un **66% mayores** en el escenario realista (PaP en Legazpi y otros municipios) que en el carga lateral integral.
- 4) **CONCLUSION:** El **BALANCE ECONOMICO** final del escenario realista y del carga lateral integral es **similar** en orden de magnitud.

Iñakik azaldu digunaren arabera, balantzea defizitariora da 3 eszenatokietan eta gaur egun egoera horri eutsi egiten zaio Sasieta zaborteagatari eta bertan zaborrak uzteagatik Gipuzkoako beste eskualdeek ordaintzen dutenari “esker”.

“Sasieta Mankomunitatean hondakinak gaika biltzeko sistema hobetzeko egin den bideragarritasun txostenaren emaitzak. Legazpirako egokiena izan daitekeen bilketa-sistema aztertzea eta proposatzea”

Datu eta ondorio nagusiak

4. Legazpirako proposatu den eredua:

- Legazpirako proposamena, udal gobernu taldearen borondatearen arabera, 1. eszenatokian jasotzen dena da:
 - o Hirigunea: papera-kartoia, ontziak, materia organikoa eta errefusa atez ate jasotzea eta beira, olio, arropak eta pilak edukiontzietan.
 - o Landa-eremuak: bilketa-eremu itxiak zonaldeko erabiltzaileentzako eta materia organikoa norberak bakarka edo taldeka jaso eta konpost egitea.



- Hiriguneari dagokionez, proposamenean zehazteko eta adosteko geratzen dira bizilagunekin landu beharreko hainbat gai: bilketaren egutegia, ontzien formatua, kakoak edo esekitokiak jarri edo ez...



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



5. Galderetarako eta iruzkinetarako txanda

Gaurko tailerraren helburua informatzea denez, azalpenaren zehar ugariak izan dira bertaratu diren pertsonen adierazi dituzten **zalantzak, ñabardurak eta iruzkinak**.

Hondakinak gaika biltzeko planteatu diren 3 eszenatokientzako estimazioen eta bakoitzari dagokion balantze ekonomikoaren gainean izan dira bertaratutakoen parte hartze gehienak.

Eta horiek guztiek, Iñakik eta Enrique Enparantza mankomunitateko teknikariak eman dituzten erantzunekin batera, ikerketaren edukian sakontzen lagundu digute.

6. Informazio zehatzagoa izateko

Iñaki Erauskinek eta Legazpiko Udalak azterketa honen **behin betiko txostena** urte amaieran jasotzea espero dela adierazi dute. Txosten hori interesa duen edonoren esku jarriko dute.

Horrez gain, urtarrilean zehar, gaur bezalako **bilera informatiboak** eskainiko dira udalerriko beste leku batzuetan.

7. Agurra eta 2013ra arte!

Gaurko genuen denbora tarte erabat agortuta (gaueko 21:00ak dira dagoeneko) eta debatearen eta bertaratu diren pertsonen egin dituzten galderen eta ekarpenen aberastasunarekin, amaiera eman diogu gaurko tailerrari.

Informatzeko gaurko tailerraren helburua beteta –eskerrik asko Iñaki eta Enrique zuen azalpenengatik–, orain bai... **ondo bukatu 2012a eta 2013an ikusiko dugu elkar!**

Mila, mila esker guztioi!
Eta ondo pasa datozen egun bereziak!